

Laudion, 2024ko irailaren 18an

Aurten ere Laudiok Euskal Jaiaz gozatuko du irailaren 27an eta 28an

Basalarrinak, Suziri-Jai Laudioko Jaiak Koordinakundeak eta Kirikiñok, Udalarekin elkarlanean, hainbat jarduera antolatu dituzte; ostiralean 17:00etan hasi, eta larunbat gauera arte luzatuko da jai-giroa

Laudio prest dago Euskal Jaiaz gozatzeko! Irailaren 28rako eta 29rako egitarau oparoa prestatu dute Basalarrinak, herriko kuadrillek –Suziri-Jai Laudioko Jai Koordinakundearen bitartez– eta Kirikiñok, Udalarekin lankidetzan. Aurten, gainera, berritasuna dakar: herriko kuadrillen inplikazioa, oso positibotzat jo dena Hizkuntza Politiken Arlotik. *“Hamabost edizio baino gehiago daramatzagu euskal kultura eta euskara bultzatzen, gure nortasun ikurra ezagutarazten. Beste behin ere, egun honetan euskaraz bizi nahi duten guztiak animatu nahi ditugu festa honetara, bai eta jantzi klasikoak jantzita etor daitezela ere”,* adierazi du Nagore Gomara euskara-zinegotziak.

Egitaraua ostiralean hasiko da, 17:00etatik aurrera, Basalarrinak Herriko Plazan antolatutako umeentzako tailerrekin. Bi ordu beranduago, espazio berean, txikienek txokolatada eta buruhandi mitologikoen erakustaldia izango dute.

Larunbatean, 10:00etatik aurrera, Aldai plaza ekintzaz lepo egongo da: baserritarren merkatuaz gain, audioarrak herri-kiroletan arituko dira eta Akelarre dantza-ikuskizunaz gozatu ahalko dute. Plaza horretan bertan ere herri-bazkaria egingo da 14:30ean. Bazkarirako 400 tiket jarriko dira salgai, 10 euroren truke, eta Gorka eta Ilargi tabernetan eskuratu ahalko dira.

Bazkariaren ondoren, bertso-saioa izango da Juanjo Respaldiza, Oihane Perea, Manex Agirre eta Maddalen Arzallusekin; Serapio Lopez arituko da jai-jartzaile. Bingo musikala eta mus-lehiaketa ere egongo dira.

Arratsaldeko 18:00etan, kalez kale kantuan ibiltzeko aukera izango da, eta ondoren irrintzi-lehiaketa egongo da. Gauean, 22:00ean, Nøgen folk-pop taldeak Audio girotuko du, eta, horren ostean, Zirkinik Bez erromeriaren doinuek alaituko dute gaua. Dena den, musika ez da goizaldera arte geldituko, 03:00etatik aurrera Aztarnak DJak amaiera emango baitio aurtengo Euskal Jaiari.

Era berean, antolatzaileek 2.000 pegatina eta 700 txapa diseinatu dituzte. "Badakit badakizula. Egin dezagun euskaraz" mezua soinean, asmoa da egun horretan guztiok gure hizkuntzan, euskaraz, berba egitera animatzea eta gure arteko harremanak euskaraz izatea.